

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Karmen Iñurritegi Altzelai

*Oñati,
Gipuzkoa
(1936)*

Aurkibidea



Biografia



Lekunberri auzoko (Triana bezala ere ezaguna) Portalekua etxekoa. Aita bertakoa zuen (haren gurasoak Olarangoak ziren arren) eta ama Garibai auzoko Juliangoa baserrikoa. Hiru ahizpa eta mutil bat ziren, baina mutila umetan hil zen. Hiru ahizpatan bigarrena da. Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, [Nati Altubere](#)kin batera. Gurasoek hika egiten zioten Natiri eta ahizpekin hika egin izan du beti; baita auzoko askorekin ere.

Zintak

ONA-252

- **Proiektua:** Oñatiko noka: Ingo Xonau!
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2019-02-12
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

ONA-253

- **Proiektua:** Oñatiko noka: Ingo Xonau!
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2019-02-12
- **Iraupena:** 72 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Hika ez zaio edozeini egiten

- **Erref:** ONA-252/004
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:05:44. **Bukatu:** 00:07:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Hika konfiantzazko pertsonekin bakarrik egiten dute. Koadrilan beste birekin bakarrik egiten dute hika (Ixiar eta Kontxi).</p>

2. Auzoan hika egiteko ohitura handia

- **Erref:** ONA-252/011
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:14:01. **Bukatu:** 00:15:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Alabei ez die hika egiten Natik. Karmenek ere mutilei hika egiten die baina neskei ez. Gurasoei zuka egiten zien Karmenek, baina haiek berari beti hika. Lekunberrin (Triana) hika egiteko ohitura zuten kalean.</p>

3. "Triana", auzo berezia

- **Erref:** ONA-252/013
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:15:45. **Bukatu:** 00:16:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Lekunberrikoak basati samarrak zirela diote. "Kontuz honekin, trianarra dok eta!".

4. Auzokoekin hika orain ere

- **Erref:** ONA-252/015
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:19:15. **Bukatu:** 00:22:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Umetatik ikasi zuen hika Karmenek. Gurasoek beren senideekin ere hika egiten zuten. Auzoan hika egiteko ohitura zuten umetan. Gaur egun ere askorekin egiten du hika Karmenek.</p>

5. Erderaz, norbere buruari inportantzia emateko

- **Erref:** ONA-252/021
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:29:30. **Bukatu:** 00:30:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Erdaraz egiten zuten batzuetan, beren buruei inportantzia emateagatik edo. Mutil batzuekin ere bai.

6. Auzokoak auzokoekin

- **Erref:** ONA-252/023
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:31:38. **Bukatu:** 00:32:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Auzokoak auzokoekin ibiltzen ziren, ez ziren beste auzo batzuetako umeeekin nahasten.

7. Triana aparteago geratzen zen lehen

- **Erref:** ONA-252/025
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:32:45. **Bukatu:** 00:34:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Triana aparteago geratzen zen lehen. Orain dena da bat.

8. Hika, "harreman goxoagoa"

- **Erref:** ONA-252/028
- **Iraupena:** 0:00:15. **Hasi:** 00:38:05. **Bukatu:** 00:38:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Hitanoak konfidantza eta goxotasuna ematen duela diote.</p>

9. Erdararen eragina hitanoaren galeran

- **Erref:** ONA-252/033
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:46:53. **Bukatu:** 00:48:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Erdera sartu izanak hitanoaren galerarekin zer ikusia izan dezakeela uste du Karmenek. Eta orain ere erdara ikusten du nagusi. Euskararen kontzientzia, Franco hil ostean.</p>

10. Gero eta gutxiago egiten da hika

- **Erref:** ONA-252/035
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:49:01. **Bukatu:** 00:50:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Hika hitz egiten dutenak gutxi direla dio Karmenek, egoera aldatu egin zela erderaren eraginez. Gazteek ez dute hika asko egiten.</p>

11. Mutil gazteek gehiago egiten dute hika neskek baino

- **Erref:** ONA-252/037
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:52:05. **Bukatu:** 00:54:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Neska gazteek ez dute hika egiten. Mutil gazteek askoz gehiago.</p>

12. Txakurrari hika, lorei zuka

- **Erref:** ONA-252/039
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:54:28. **Bukatu:** 00:56:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Txakurrari hika egiten dio Karmenek eta katuei ere bai, baina lorei zuka. Beren buruekin ere hika egiten dute.</p>

13. Hika: konfidantza eta gertutasuna

- **Erref:** ONA-252/040
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:56:16. **Bukatu:** 00:58:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Hikak gertutasuna eta konfidantza ematen die, konplizitate bat.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com